

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak kobratzea

Nik, Aitor Abecia Jimenez de Aberasturik, Zambranako Udaleko alkate-lehendakariak, hau

Jakinarazten dut: 2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean, borondatezko epean ordaindu ahal izango dira jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak:

1. Ordaintzeko epea.

Borondatezko epea: 2021eko urriaren 15etik abenduaren 15era.

Betearazte aldia: 2021eko abenduaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

2. Ordaintzeko tokia eta modua.

Banketxeetan helbideratuta dauden ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, oraindik helbideratze kontu berbera badute. Hala ez bada, udalari jakinarazi beharko zaizkio kontu korronte berriari buruzko datuak. 2021eko urriaren 15a baino lehen.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten zergadunek horretarako bidalitako ordainketa gutunarekin egin beharko dute ordainketa, banku erakundeetan, Eusko Jauriaritzaren ordainketa pasabidearen bitartez edo udal bulegoetan, indarrean dagoen aurrez aurreko arreta ordutegian.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zambrana, 2021eko urriaren 7a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI